

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4140

AGINDUA, 2012ko uztailaren 17koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2012-2013 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten duena, zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat.

Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren bidez (abenduaren 31ko EHAA, 249. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko zero eta hiru urte arteko umeen haur-eskolak arautu ziren, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetarako. Dekretu horretan, ziklo horretako xedeak eta helburuak zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko zero eta hiru urte arteko umeen haur-eskolek bete beharreko kalitate-baldintzak ezarri ziren.

2002/207 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarri ziren hezkuntza-eskaintza planifikatzeko lehentasun-irizpideak: hiru urtetik beherakoentzako oraingo eskaintza sendotuko da, lehentasuna emanez maila sozioekonomiko apalagoa duten aldeei, titulartasun publikoko haur-eskolak sustatuz, eskaintza sendotuz, eta haur-eskolen kopurua areagotuz halako eskaintzarik ez duten aldeetan.

Azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuak, ildo beretik, luzatu egin zuen 297/2002 Dekretuaren zenbait artikuluren eta, besteak beste, 3. xedapen gehigarriaren indarraldia, titulartasun pribatuko haur-eskolentzako diru-laguntzetarako deialdiak arautu baititu.

Hirugarren xedapen gehigarri horrek xedatzen duenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak laguntza ekonomikoen deialdi bat egingo die ikasturtero zero eta hiru urteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolei, egungo eskaintza sendotu edo, beharrezkotzat jotzen denean, handitzeko.

Era berean, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 3/2008 Legearen 19. artikulua ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak neurriak jarriko ditu 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolak sendotzeko.

Aipatutako xedapenak betez, agindu honen xedea da behar bezalako baimena duten titulartasun pribatuko haur-eskolentzako diru-laguntzen deialdia egitea 2012-2013 ikasturterako. Beraz, laguntzen helburua da haur-eskola horiei eusteko gastuak arintzea, familiek egin beharreko ordainketak gutxitzeko asmoz.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsiak, bere VI. tituluaren xedatu duenarekin bat etorritz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuko diru-laguntzak arautu baititu, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da EAEko 0 eta 3 urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolei 2012-2013 ikasturterako diru-laguntzak ematea. Deialdi honetan 26.655.508 euroko diru-laguntza emango zaie, gehienez.

2. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Pertsona edo erakunde interesdunek bitarteko elektronikoak erabili ahalko dituzte prozedura honen izapideak eskatu, kontsultatu eta burutzeko.

2.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Platea E-Administrazio Plataforma Teknologikoa onartzen duen Informatika eta Teknologiako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute izapidetze elektronikoa.

3.– Eskaerak eta erantzukizunpeko adierazpenak modu elektronikoan zelan egin jakiteko eta ereduak eskuratzeko, jo helbide elektronikoa honetara: <https://www.euskadi.net>

4.– Herritarrek, eskabidea egiteko eta dokumentuak aurkezteko, bide presentziala edo elektronikoa erabiltzeak ez du esan nahi nahitaez baliabide horiek erabili behar dituztenik prozeduraren ondorengo izapideetan, edozein unetan alda daitezke eta.

Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoz: <https://www.euskadi.net/misgestiones>

3. artikulua.– Helburua.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzak emango dira zero eta hiru urte bitarteko umeentzako titulartasun pribatuko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko eskolei eusten laguntzeko, familien kuotak gutxitu eta homogeneizatzeko, familia eta lana uztartzeko zerbitzu bat eskaintzeko eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Izan ere, dagoen eskaintza sendotu nahi da, eta, beharrezkotzat joz gero, zabaldu, beti ere abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen plangintza-irizpideekin bat etorrita.

4. artikulua.– Onuradunak.

1.– Deialdi honetan, Haur Hezkuntzako lehen zikloko EAEko ikastetxe pribatuek hartu ahal izango dute, baldin eta 2012-2013 ikasturtean etapa hori emateko baimena badute.

2.– Laguntza ematea eta, hala bada, ordaintzea baldintzatuta dago; hain zuzen ere, laguntzarik eman edo ordaintzeko, amaituta egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak emandako izaera bereko laguntzak edo diru-laguntzak direla-eta hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zigor-prozedura.

3.– Erakundeak ezin izango dira bildu deialdi honetan araututako laguntzetara, baldin eta diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea eragin dien zehapen administratibo edo penalik badute edo horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik badute, sexu-diskriminazioaren ondoriozkoak barne, beti ere Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren arabera.

5. artikulua.– Betebeharrak, baldintzak eta beren akreditazioa.

1.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 52. artikulua betez, izapidetze elektronikoa bitartez laguntzak eskatu dituen pertsonak edo erakundeak zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egon behar duela dioen baldintza betetzen duela organo kudeatzaileak egiaztatuko du automatikoki, behar bestetan. Horretarako, ez da beharko erakunde eskatzailearen oniritzirik.

2.– Eskabideetan jasota egongo da laguntza eskatzen duen pertsonak edo erakundeak beren beregi onartu ahal izango duela organo kudeatzaileak gainerako datu edo dokumentu horiek lortzea

edo egiaztatzea, hala bide presentziala nola elektronikoa erabiltzen duenean. Hori gorabehera, Herri Administrazioak egiaztatu, kontrolatu eta ikuskatzeko eskumenak ditu.

3.– Ez da berriro aurkeztu behar lehenagoko deialdietan Administrazioan aurkeztutako dokumentaziorik.

4.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikulua betez, betebeharrak hauek egiaztatuko dira eskaeran, erantzukizunpeko adierazpen bidez:

– Alta emanda egotea Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan. Baldintza hori bete behar da deialdia ebatzi eta ordaintzeko, ebazpena ematekoa denean.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea.

– Helburu bererako diru-laguntzak, laguntzak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso direla adieraztea, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak.

– Inongo itzulketak- edo zehapen-prozeduretan sartuta ez egotea, edo, sartuta egonez gero, itzulketak- edo zehapen-prozedura horiek bukatuta egotea. Edo, EAEko Administrazio Orokorreko edo beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi bada prozedura, oraindik izapidetzan egotea.

– Pertsona edo erakunde eskatzailea ez administratiboki ez penalki zigortuta ez egotea diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko, edo ez egotea laguntzak jasotzea eragozten dien inolako lege-debekuren pean.

– Eskabide-orrako eta berarekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla adieraztea, eta betetzen dituela laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

5.– Erregistratuta egon ezean, edo Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi izanez gero:

– Bide presentziala erabilita: http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/autorizacion/alta_terceros7es_7999/alta_terceros.html webgunean dagoen ereduari jarraikiz.

– Bide elektronikoa erabilita: URL10.

6. artikulua.– Diruz lagundu beharreko postu-kopurua zehaztea.

Diru-laguntza kalkulatzeko orduan kontuan hartuko diren postu beteak edo okupatuak zehazteari dagokionez, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

Hiru tarteetan, betetako plaza guztiak diruz lagunduko dira, beti ere 2012-2013 ikasturterako finkatutako mugaz.

Nolanahi ere, 2012ko irailaren 15ean matrikultatuta dauden ikasleak zenbatuko dira diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko. Ondorio horietarako, ez dira matrikulatutzat joko irailaren 15a baino beranduago jaiotako haurrak.

2012ko irailaren 15ean lau hilabete edo gehiago dituztela matrikulatutako seinek ikasturte osoko diru-laguntza jasotzeko eskubide izango dute.

2012ko irailaren 15ean matrikulatutako gainerako hurrek diru-laguntza jasotzeko eskubidea emango dute, lau urte baino gutxiago badituzte. Eskala honen arabera emango dira laguntzak:

Maiatzaren 16tik ekainaren 15era bitartean jaiotakoek, 2012ko urritik 2013ko uztaiera bitartean.

Ekainaren 16tik uztaieraren 15era bitartean jaiotakoek, 2012ko azarotik 2013ko uztaiera bitartean.

Uztaieraren 16tik abuztuaren 15era bitartean jaiotakoek, 2012ko abendutik 2013ko uztaiera bitartean.

Abuztuaren 16tik irailaren 15era bitartean jaiotakoek, 2013ko urtarriletik uztaiera bitartean.

7. artikulua.– Finantzaketa umeko.

1.– Hiru adin-tarteetan, urteko moduluaren % 60 finantzatuko zaio betetzen den plaza bakoitzari:

	Moduloa	Diru-laguntza
0 urte	6.956,08	4.173,65 euro
Urte 1	4.280,68	2.568,41 euro
2 urte	3.091,60	1.854,96 euro

2.– Lehenengo artikuluan ezarritako zenbatekoa nahikoa ez bada egin diren eskaera guztiei erantzuteko eta handitzerik ez balego, ateratzen den zenbatekoa berdindu edo hainbanatu egingo da, guztizko zenbateko hori ezarri den mugari egokitzeko.

8. artikulua.– Eskaerak eta aurkeztu behar diren agiriak.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko eskabide-orriak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Ikastetxeen Zuzendaritzara bidali beharko dira. Hain zuzen ere, horretarako ezarritako eskabide-eredu bat igorri beharko da Hezkuntza Sailordetzara, behar bezala beteta. Eskabide-eredua <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoa egongo da eskuragarri, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Erregistro Nagusian aurkeztu ahal izango da (Donostia kalea 1, 01010, Gasteiz), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein organotan. Posta-bulegoetan aurkeztuz gero, gutunazal irekian eraman beharko dira, dokumentuko lehen orriko goiburuan azal dadin zein egunetan eta zein orduetan onartu diren bulego horietan.

Era berean, bide elektronikoa erabiliz ere aurkeztu ahalko dira eskabideak, euskadi.net egoitza elektronikoa sartuta (<https://www.euskadi.net>).

2.– Pertsona edo erakunde eskatzaileek eskabidea eta horri erantsitako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dute, eurek aukeratzen duten hizkuntzan. Era berean, pertsona edo erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, hala ezarrita baitago azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan (10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea).

3.– Deialdi honi heltzeko, eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4.– Eskaerarekin batera, honako agiriak ere aurkeztu behar dira, nahitaez: agindu honen eranskinak (<https://www.euskadi.net> webgunean eskuragarri).

a) 2012ko irailaren 15ean matrikulaturik dauden haurren zerrenda banakatua (I., II. eta III. eranskinak), jaioteguna zehazten.

III. eranskinean (2012an jaiotako haurrak) bereiztu egingo da matrikulatutako zein ume jaio zen maiatzaren 15a baino lehenago edo beranduago, eta familia-liburuaren haur bakoitza dagoen orrialdeko fotokopia aurkeztuko da.

b) Haurren banaketa, adinaren arabera, baimendutako ikasgeletan (IV. eranskina).

c) Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskola-egutegi eta ordutegia (V. eranskina). 2012-2013 ikasturteko irakastegunak adieraziko dira bertan.

d) 2012-2013 ikasturterako eskatutako edo/eta jasotako bestelako laguntzen zerrenda (VI. eranskina).

e) Notario-ahalordea, edo kreditatzen duen beste dokumentua, eskatzaileari baimena ematen diona ikastetxearen izenean jarduteko. Ez da beharko, aurreko deialdietan aurkeztu bada.

f) 2012-2013 ikasturteko aurrekontua (VII. eranskina).

g) Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko eskolaren hezkuntza-langileen zerrenda, lan-egoera, eta euskarako eta ikasketen titulazioak adieraziz (VIII. eranskina). 2012-2013 ikasturte honetan kontratatutako lagunen tituluen eta lan-kontratuen fotokopiak baino ez dira bidali beharko.

5.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuak, bestalde, «Haur Hezkuntzako diru-laguntzak» izeneko fitxategian sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau eta beronekin zerikusirik duen beste edozein prozedura edo administrazio-espeditente kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Ikastetxeen Zuzendaritza da fitxategiaren arduraduna. Datuak aurkatu, kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeak eskubideak Ikastetxeen Zuzendaritza erabili ahal izango dira. Horretarako, Donostia kaleko 1era (Vitoria-Gasteiz; PK: 01010) jo beharko da.

6.– Hezkuntza eta laguntza-proiektua haur-eskolan gordeko da, eta agindu honen 17. artikuluan ezarritako jarraipen-batzordearen esku geratuko da. Hezkuntza-proiektu horrek ondokoak hartuko ditu barne, besteak beste:

a) Haurren kopurua, urteen arabera, taldekatzeko irizpideak, unitate-kopurua, adinaren eta hizkuntza-ereduaren arabera.

b) Unitate bakoitzeko haur-hezitzaileen zerrenda, honako hauek jasoz: lan-egoera, titulazioa eta hizkuntza-gaitasuna. Laguntza-langileen zerrenda ere jasoko da.

c) Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskola-egutegia eta ordutegia eta eskainitako zerbitzuak: jantokia, mediku- eta osasun-laguntza, laguntza psikologikoa, gurasoen eskola...

d) Jarduketak hezkuntza-eremuan dituen balore, helburu eta lehentasunen definizioa.

9. artikulua.– Organo instrukzio-egilea eta dokumentazioa zuzentzea.

1.– Ikastetxeen Zuzendaritza izango da diru-laguntzak emateko prozedura organo instrukzio-egilea, eta prozedura ebazteko egoki deritzen agiri guztiak eskatu ahal izango ditu.

2.– Ikastetxeen Zuzendaritzak zehaztasun eza edo hutsegiteren bat antzematen badu aurkeztutako eskabidean, eskatzaileari jakinarazi, eta hamar eguneko epea emango dio, zuzentzeko.

Aipatu epean eskatzaileak zuzenketarik ez badu egin, eskaeran atzera egin duela joko da, 4/1999 Legearen 42. artikuluan jasotakoaren arabera eman behar den ebazpenaren ostean.

10. artikulua.– Balorazio-batzordea.

Balorazio-batzordeak kide hauek izango ditu:

- Ikastetxeen zuzendaria, presidentea izango dena.
- Hezkuntzako ikuskari nagusia edo haren ordezkari moduan, Hezkuntzako ikuskari bat, Hezkuntzako ikuskari nagusi horrek izendatuta.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, zuzendaritza horretako titularrak izendatua.
- Ikastetxeen Zuzendaritzako bi pertsona, zuzendaritza horretako titularrak izendatua. Idazkari-lanak egingo ditu horietako batek.

11. artikulua.– Balorazio-batzordearen egitekoak.

Balorazio-batzordearen eginkizuna izango da aurkeztu diren agiriak aztertzea eta Hezkuntzako sailburuordeari proposatzea Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskola bakoitzari eman beharreko laguntza, 4. artikuluan azaldu diren irizpideak aplikatuz.

12. artikulua.– Deialdia ebaztea.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak ebazpena emango du, balorazio-batzordeak egindako proposamena aztertu eta gero. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Epea amaitu eta interesdunei ebazpenik jakinarazi ezean, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da.

13. artikulua.– Laguntzak jasotzea eta justifikatzea.

1.– Diru-laguntza bi epetan ordainduko da. Lehenengoan, emandako diru-laguntza osoaren % 30 ordainduko da, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpena (agindu honen 12. artikuluan aipatzen dena) argitaratu ondoren. Bigarren ordainketa, berriz, 2013ko uztailaren 31ko egunera egingo da.

2.– Ekainaren lehenengo hamabostaldian, diru-laguntza jaso duten pertsonak edo erakundeek azalpen-memoria bat bidali beharko dute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Ikastetxeen Zuzendaritzara. Horretarako ezarritako inprimaki-eredu bat erabiliko da, eta behar bezala bete. Hor azalduko da zertan erabili den emandako diru-laguntza, Haur Eskolak 2012-2013 ikasturtean izandako gastuak eta diru-sarrerak zehaztuta. Inprimaki-eredua <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Erregistro Nagusian aurkeztu ahal izango da (Donostia kalea 1, 01010, Gasteiz), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen

38.4 artikuluan aurreikusitako edozein organotan. Posta-bulegoetan aurkeztuz gero, gutunazal irekian eraman beharko dira, dokumentuko lehen orriko goiburuan azal dadin zein egunetan eta zein ordutan onartu diren bulego horietan.

3.– Ikastetxeen Zuzendaritzak laginketa-tekniken bidez egiaztatuko ditu diruz lagundutako jardueraren ziurtagiriak, hain zuzen ere egoki irizten dituenak, diruaren kopuru osoak, diru-laguntzen kopuruak zuzenak direla eta diru-laguntzak eurak ondo erabili direla ziurtatzeko.

4.– Aurkeztutako justifikazioa dela eta, diru-sarrerak egindako gastuak baino handiagoak direla egiaztatzen bada, Hezkuntzako Sailburuordetzak diru-laguntza kitatu egingo du; horretarako, antzemandako aldea gutxituko da, gain-finantzaketarik gerta ez dadin. Ondorio horietarako, organo horrek kitatze-ebazpena emango du, eta horretarako kontuan hartuko du abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedura.

14. artikulua.– Bateragarritasunen araubidea.

Deialdi honen bidez lortutako kopurua bateragarria izango da hezkuntza arloan eskumenik ez duten administrazio publikoen edo erakunde pribatuen mende dauden organoen bidez lortutako beste edozeinekin, baina diru-laguntza guztien batuketak ezingo du izan gastuaren % 100 baino gehiago. Halakorik gertatuko balitz, egindako gastutik gora jasotzen den kopurua kenduko zaio deialdi honen arabera legokiokkeen diru-laguntzari.

15. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzaren onuradunek betekizun hauek izango dituzte:

1.– Ematen den diru-laguntza onartzea. Ebazpena EHAAn argitaratu ondoko hamabost egunetan pertsona/erakunde onuradunek diru-laguntzari beren-beregi eta idatziz ez badiote uko egiten, diru-laguntza onartutzat joko da.

2.– Diru-laguntza helburu jakin batera ematen dugu, eta horrexetarako erabili behar da.

3.– Diru-laguntzaren hartzaileak, halaber, men egin behar die diru-laguntza eman duen administrazioak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin ditzaketen egiaztapen-ekintzei, eta Administrazioaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin ditzakeen kontrol-ekintzei, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, bere 50.2 artikuluan adierazten duenez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, eskumena duen sailaren bitartez, auditoretzak egin ahal izango ditu ikastetxeetan, emandako datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

16. artikulua.– Ez betetzea eta itzultzeko prozedura.

Diru-laguntza emateko bide eman zuten baldintzetako bat ez dela betetzen egiaztatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaio jasotako diru-zenbatekoa eta horren legezko interesak, beti ere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin bat eta horri jarraiki. Eta batez ere kasu hauetan:

- a) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea.
- b) Laguntza zertarako eman, horretarako ez erabiltzea.
- c) Behar diren baldintzak bete gabe lortzea laguntza.
- d) Agindu honen 13. artikuluan ezarritako obligazioetarikoren bat ez betetzea.

17. artikulua.– Jarraipen-batzordea.

Deialdi honetan ezarritako baldintzak eta xedea behar bezala betetzen direla bermatzeko, jarraipen-batzordea eratuko da. Hauek izango dira batzordeko kideak:

- Ikastetxeen zuzendaria edo haren ordezkoa, Presidentea izango dena.
- Hezkuntzako ikuskaria, balorazio-batzordeko kide baita.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak izendatutako teknikari bat.
- Ikastetxeen Zuzendaritzak izendatutako teknikari bat, idazkaria izango dena.

18. artikulua.– Jarraipen-batzordearen egitekoak.

1.– Jarraipen-batzordeak, berak zehazten duen prozeduraren arabera, bere esku izango du diru-laguntza jasotzen duen erakundeak bere betebeharrak zein neurritan betetzen dituen egiaztatzea.

2.– Horretarako, jarraipen-batzordeak, 13. artikuluan azaldu den bigarren ordainketa egin aurretik, erakunde onuradunek aurkeztutako datuak aztertu ahalko ditu, eta agindu zaizkion funtzioak betetzeko beharrezko irizten dien agiri osagarri guztiak eska ditzake.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Prozedura-gaietan agindu honek arautzen ez duenerako, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko da, eta kontuan hartuko dira lege horri gero egindako aldaketak.

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren kontra, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, agindu hau EHAAan argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau EHAAan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Ikastetxeen Zuzendaritzari baimena ematen zaio agindu hau betetzeko beharrezko diren jarraibide guztiak eman ditzan.

Laugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 17a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

2012ko irailaren 14a, ostirala

ESKABIDE-ERANSKINA**0-3 URTE ARTEKO UMEENTZAKO TITULARTASUN PRIBATUKO
HAUR-ESKOLENTZAT LAGUNTZAK**

Izartxo (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA*

<input type="checkbox"/>	Titularra	<input type="checkbox"/>	Ordezkarria
--------------------------	-----------	--------------------------	-------------

DATU PERTSONALAK

TITULARRA		
Erakundearen izendapena*	Dokumentu-mota*	Zenbakia
Tel. finkoa	Tel. mugikorra	

ORDEZKARIA		
Izena / Erakundearen izendapena*	Dokumentu-mota*	Zenbakia
Lehen abizena	Bigarren abizena	
Tel. finkoa	Tel. mugikorra	Sexua
		<input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea

JAKINARAZPENA*

<input type="checkbox"/>	Elektronikoa	<input type="checkbox"/>	Posta bidez
--------------------------	--------------	--------------------------	-------------

HELBURU POSTALETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik)

Herrialdea*	Espainia		
Helbidea*	Zk	Pisua	Letra
PK*	Udalerrria*	Lurraldea*	

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOETARAKO

Posta elektronikoa (puntu eta koma [;] bitartez bereziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma [;] bitartez bereziak)

2012ko irailaren 14a, ostirala

JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK JASOTZEKO HEZKUNTZA*

<input type="checkbox"/>	Euskara	<input type="checkbox"/>	Gaztelania
--------------------------	---------	--------------------------	------------

BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK

Titularraren betebeharraren fiskalen informazioa duen Zerga Administrazioaren Lurraldea/Probintzia* _____

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**BATERAGARRITASUN-ADIERAZPENAK**

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Erakunde eskatzailea ez dago laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik. |
| <input type="checkbox"/> | Erakunde eskatzaileak Administrazio Publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza bat eskatu dio eta eman diote (atal honen datuak eranskinean zehaztu beharko dira) |
| <input type="checkbox"/> | Erakunde eskatzaileak Administrazio Publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza bat eskatu dio eta oraindik erantzunaren zain dago (atal honen datuak eranskinean zehaztu beharko dira) |

BESTELAKO ADIERAZPENAK

Erakunde eskatzailea diru-laguntza edo lagunaza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor edo administrazio-arloko zigorrik ez dauka, eta ez dago laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duen lege-debekuen eraginpean, beren beregi Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatik lege-debekuen eraginpean.

Erakunde eskatzaileak egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, araz zehaztu den bezala.

Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak dira.

Erakunde eskatzaileak laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditu.

ADOSTASUNAK**Ordez kariaren nortasun-datuak**

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen atalari, dagokion administrazioan baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez datuok, egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko. |
|--------------------------|---|

Hirugarrenen alta

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen atalari, dagokion administrazioan baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez datuok egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko. |
|--------------------------|--|

2012ko irailaren 14a, ostirala

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ikastetxeen Zuzendaritzak** jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak Eusko Jaurlaritzaren «Subvenciones a centros de enseñanza» fitxategian sartu direla. Eusko Jaurlaritzaren **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ikastetxeen Zuzendaritza** da fitxategi horren titularra eta 2010eko urriaren 4ko Araudian araututa dago. Fitxategiak laguntza emateko espedienteak kudeatzea da helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari eman zaio horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak etarrita ditu. Fitxategiaren datuak, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zezentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ikastetxeen Zuzendaritzara** jotzea (Donostia kalea 1, 01010, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

_____ (e)n , _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

1

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

Pertsona juridikoek, beti jokatzen dute ordezkari baten bitartez. Beraz, «Eskabidea aurkezten duena» atalean «Ordezkaria» aukeratu behar du, eta «Datu pertsonalak» atalean, erakundearen datuak datzi «Titularra» idazpuruan, eta erakundearen ordezkariaren datuak «Ordezkaria» idazpuruan. Eskabidea ordezkariak sinatuko du.

2

JAKINARAZPENA

Eskatzaileak jakinarazpenak zein kanaletik jaso nahi dituen aukera dezake: posta bidez edo elektronikoa.

POSTA BIDEZ: «Helburu postaletarako» atalean adierazitako helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak

ELECTRONIKOA: eskatzaileak jakinarazpenak www.euskadi.net/nirekudeaketak -eko «Nire gestioak» ataleko sarrera ontzian jasotzen ditu. «Nire gestioak» atalean sartzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektronikoa bat izatea (ONA, Dnie, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT...).

3

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOETARAKO

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoak jasotzea erabaki badu, administrazioak posta elektronikoa edo mugikor bidezko zerbitzu bat jartzen du zure eskura, jakinarazpen bat bidaltzen dizun bakoitzean zu ohartarazteko.

Nahi dituzun posta elektronikoa edota mugikor zenbaki idatz ditzakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartez bereiziz.

2012ko irailaren 14a, ostirala

I. ERANSKINA**2010EAN JAIOTAKO HAURREN ZERRENDA**

Ikastetxea	
Herria	

Zenbakia	Izen-abizenak	Jaioteguna
1		

Umeak 2012ko irailaren 15ean eskolatuta egongo dira.

_____ (e)n , _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

II. ERANSKINA**2011N JAIOTAKO HAURREN ZERRENDA**

Ikastetxea	
Herria	

Zenbakia	Izen-abizenak	Jaioteguna
1		

Umeak 2012ko irailaren 15ean eskolatuta egongo dira.

_____ (e)n , _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

III. ERANSKINA**2012AN JAIOTAKO HAURREN ZERRENDA**

Ikastetxea	
Herria	

Urtarrilaren 1a eta maiatzaren 15 bitartean jaiotakoak

Zenbakia	Izen-abizenak	Jaioteguna
1		

Maatzaren 16tik aurrera jaiotakoak

Zenbakia	Izen-abizenak	Jaioteguna
1		

Umeak 2012ko irailaren 15ean matrikulatuta egongo dira.

Zerrenda horiei haur guztien familia-liburuaren fotokopiak erantsiko zaizkie

_____ (e)n , _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

IV. ERANSKINA

HAURREN BANAKETA, ADINAREN ARABERA

Ikastetxea	
Herria	

		Modeloa	Haur kopurua		
0 urteko umeak soilik dauden taldeak (2012an jaiok) Gehieneko ratioa: 8 ikasle taldeko	1. taldea				
	2. taldea				
	3. taldea				
	4. taldea				
	5. taldea				
Urte 1eko umeak soilik dauden taldeak (2011an jaiok) Gehieneko ratioa: 13 ikasle taldeko	1. taldea				
	2. taldea				
	3. taldea				
	4. taldea				
	5. taldea				
2 urteko umeak soilik dauden taldeak (2010ean jaiok) Gehieneko ratioa: 18 ikasle taldeko	1. taldea				
	2. taldea				
	3. taldea				
	4. taldea				
	5. taldea				
0 urteko eta urte 1eko umeak dauden taldeak (2011an eta 2012an jaiok) Gehieneko ratioa: 7 ikasle taldeko	1. taldea				
	2. taldea				
	3. taldea				
	4. taldea				
	5. taldea				
Urte 1eko eta 2ko umeen taldeak (2010ean eta 2011an jaiok) edo 0, 1 eta 2 urteko umeen taldeak (2010ean, 2011an eta 2012an jaiok) Gehieneko ratioa: 10 ikasle taldeko	1. taldea				
	2. taldea				
	3. taldea				
	4. taldea				
	5. taldea				

Koadro honetan bakarrik jarriko dira 2012-2013 ikasturtean baimendutako ikasgelak eta ikasgela horietan 2012ko irailaren 15erako dagoen ume-kopurua, azaldutako ratioen arabera.

_____ (e)n , _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

V. ERANSKINA

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Ikastetxea	
Herria	

EGUTEGIA

– Ikasturtearen hasiera-data:

– Ikasturtearen amaiera-data:

– Gabonetako oporrak:

Bai Hasiera:

Amaiera:

Ez

– Aste Santuko oporrak:

Bai Hasiera:

Amaiera:

Ez

– Irakastegunak, guztira: _____

ORDUTEGIA

– Goizez: Sarrera:
Irteera:

– Arratsaldez: Sarrera:
Irteera:

– Jantoki-zerbitzua:

Bai

Ez

_____ (e)n , _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

VI. ERANSKINA

ESKATU EDO/ETA JASO DIREN LAGUNTZAK

Ikastetxea	
Herria	

Eskaera-eguna	Erakundea	Egoera			Emandako zenbatekoa
		Emanda	Ez da onartu	Tramitatzen	

_____ (e)n , _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

VII. ERANSKINA**AURREKONTUA**

Ikastetxea	
Herria	

DIRU-SARRERAK**IRAKASKUNTZARAKO SARRERAK**

1.– Diru-laguntza publikoak	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	
	Jauriaritzako beste sail batzuk	
	Foru Aldundia	
	Udala	
	Beste batzuk (zehaztu)	
2.– Publikoak ez diren ekarpenak	Fundazioak	
	Beste batzuk (zehaztu)	
3.– Familien irakaskuntza-kuotak		

BESTE SARRERA BATZUK

1.– Finantza-interesak	
2.– Beste batzuk (zehaztu)	
GUZTIRA	

GASTUAK**IRAKASKUNTZA GASTUAK**

1.– Langileen gastuak	Irakasleen soldatak	
	Irakasle ez diren langileen soldatak	
	Irakasleen Gizarte Segurantza	
	Irakasle ez direnen Gizarte Segurantza	
2.– Gastu orokorrak	Alokairuak	
	Hornidurak (argia, ura, gasa, telefonoa...)	
	Garbiketa-lanak	
	Informatika-gastuak	
	Material didaktikoa eta ikus-entzunezkoak	
	Konponketa-lanak	
	Finantza-gastuak	
	Zergak	
	Beste batzuk (zehaztu)	

2012ko irailaren 14a, ostirala

3.- Amortizazioak	
-------------------	--

BESTE GASTU BATZUK (zehaztu):

--	--

GUZTIRA

EMAITZA (SARRERAK-GASTUAK)	
-----------------------------------	--

_____ (e)n , _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

VIII. ERANSKINA**HEZKUNTZA-LANGILEEN ZERRENDA**

Ikastetxea	
Herria	

Izena	Titulazioa	Lan-egoera	Euskara- titulazioa

2012-2013 ikasturtean kontratatutako lagunen tituluen eta euskara-tituluaren fotokopiak eta lan-kontratuaren fotokopiak bidali beharko dira.

Haur hezkuntzarako kontratatutako langileen izenak bakarrik agertuko dira zerrendan, nahiz eta ikastetxean beste ikasketak egon.

_____ (e)n , _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)